

noaua

**Larunbat honetan
Aginagako Eskolako
kideen topaketa**

Sagardo Eguna, iruditan

**Udako txokoetarako
orain eman behar da
izena**



**Udal gobernu berria
hautatzeko garaia iritsi da**

GERTU

**USURBILGO HERRI
MERKATARITZA,
HERRITARRAREKIKO
GERTUEN,
ZERBITZURIK ONENA
EMATEKO**

hurbilag 

Usurbilgo Merkataritza eta Oinezaketa E.A.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

USURBILGO MERKATARITZA
ETA OINEZKETA E.A.

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



Usurbilgo Udala

Albiste iruditzen

75 urte eta aurrera

Ondoko irudian 75 urte bete dituzten Santueneko jubilatuei udaberri honetan bertan Atxega Jauregian egin zitzaizen omenaldiko irudia. Oroigarri bana jaso zuten. Gogoan izan, Usurbilgo Gure Pakeak, Santueneko Gure Elkarreak eta Aginagako Arrate elkarreak deitutako hilero bizi eta pentsio duinen aldeko mobilizazioa, astebete barru izango dugu, maiatzaren 30ean 19:00etan Mikel Laboa plazan.



Atxega Jauregian egin zitzaizen omenaldian oroigarri bana jaso zuten.

Laburrean

Iñaki Agirresaroberen erakusketa Artzabalen

Duela hilabete batzuk, Iñaki Agirresarobe Arzallusek Zuberoako Maskaraden inguruko argazki erakusketa ipini zuen Zarautzen. Ekainaren 1etik 16ra Artzabalen egongo dira argazki horiek ikusgai.

Lehen sorospenen ikastaroa

Ikastaro teoriko eta praktikoa, maiatzaren 27tik ekainaren 5era, astelehene-tik ostiralera, 10:00-14:00 artean DYA-k Munalurra 26an duen egoitzan. Edonorizuzendua, talde mugatua. Izen emateko: dyagipuzkoa.com / 943 46 46 22.

Ibai Marin eta Etxeren kontzertua

Ekainaren 7an izango da kontzertua, gaueko 22:30ean Sutegi aretoan. Ordu erdi lehenago, 22:00etan irekiko dituzte ateak. Ibai Marin eta Etxe ikusteko sarrrerak ere egunean bertan jarriko dituzte salgai 8 eurotan.

noaqua

Kultur Elkarrea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarrea@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irastusta,
Jon Galbete.

Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

Bozkatu aurretik, begiratu Zubieta gainera

Hilabeteko tartean deitu den bigarren hauteskunde kanpaina amaitzeaz da, bigarrenez deitu gaituzte bozka ematera igandean. Badator honenbestez, herriak hitza hartzeko ordua. Maiatzaren 26an, gertuko nahiz urrutiko erakundeak berrituko dituzte gure bozkek; udaletik hasi, Zubietako Herri Batzarretetik segi, Gipuzkoako Batzar Nagusietatik igaro eta Europaraino helduko da gure ahotsa.

Hautagai zerrenda anitzen artean, bat edo beste aukeartzeko arrazoiak ere hamai-ka edo gehiago izan ditzake bakoitzak. Bat ordea ezin aipatu gabe utzi. Oraintxe bertan isil samarrean egon arren, laster berriz ere albiste nagusi bilakatuko den gunera begiratu, hauteslekura hurbildu baino lehen; Zubieta gainera. Esan beharrik ez ezta? Eraikitze lanak amaitzen ari dira, atzerapenik

ez bada uda honetan bertan proben fasea abiarazi dezakete eta urrian martxan ikusi ahalko dugu herriko hainbat etxeetako leihoetatik, ikastolatik, Kaxkoko kaleetatik, Urdaiagatik, Andatzatik, Kalezarko etorkizuneko adinekoen egoitzatik...

Aldaketarik ez bada, aurrekaririk ez duen testuinguru berri batean barneratzera goaz laster. Hamarkada batetik gora, milaka lagun mobilizatu izan da Gipuzkoan inork etxe ondoan, ez beste inon nahi ez zuen erraustegiaren aurka protestatzeko. Kokagunea herriz herri "zozketatzen" ibili ziren garaietan, erraustegia eraikiko zen herria hautatu eta bertakoak nahiz ingurukoak kalean izan zituzten agintariek.

Zubieta behin betiko kokagune gisa hautatu arte. Artean, existitzen ez zen azpiegitura baten aurka mobilizatu ziren milaka gipuzkoar. Zulatu zuten

Zubieta gaina, baina azpiegiturak eraikitzen hasi aurretik, eta herri borondateari bide emanez geldiarazi zuten erraustegia 2013ko azaroan, orduan Foru Aldundian agintean zen EH Bilduk. Gerora, herri borondatearen bide emateagatik zigortu zituzten. Gobernu aldatetarekin, foru agintari berriek 2015ean berriz ere proiektua abiarazi eta fase berri batean murgildu ginen; erraustegia itxura hartzen hasi zen orain bi urte.

Ordutik etenik gabekoak (literalki, gau eta egun, astelehentik igandera) izan dituzte langileak lanean, esan beharrik ere ez zer nolako baldintzetan, lanak garaiz amaitzeko. Tarte honetan ere, milaka gipuzkoar mobilizatu dira, eragile ezberdinek deitutako ekimen anitzetan. Ezezkoa argia eta ozen askoa izan da.

Baina ezetza ezetz dela uler- tu nahi ez eta entzungorrena eginez segi dute erraustegia

martxan ikusi nahi dutenek eta orain panorama berrian barneratzera goaz. Orain arte eza- gutu ez dugun egoera berrian egon gaitzeko laster. Amets gaiztoa errealitate bilakatzeko bidean, erraustegia kea dariola ikustera igaro gaitzeko gutxi barru. Edo ez? Behin gelditzea lortu bazen, zergatik ez bigarrenez? Ezingo da izan egun batetik bestera, baina egoera aldatzeko bidean mugari garrantzitsua izan litezke igandeko hauteskundeak. Erraustegia bai ala ez? Alderdi politikoak oso ongi definituak daude bi erantzun posibleon artean. Bozka bakoitza, erraustegia kea dariola ikustea erraztu edo eragozteko ezin garrantzitsua goa izango da. Erantzunkizun osoa beraz gutako bakoitzarena. Erraustegiaren edo alternatiben aldeko erakundeetako eserlekuak ere jokoan izango dira maiatzaren 26an.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Ika-mika

Bakearen etsaiak berandu datoz: ez dute herri honen bakeranzko bidea galaraztea lortuko

Sortuk Josu Urrutikoetxearen atxiloketa salatu eta berehala aske uzteko eskatzen du. Era berean, elkartasuna agertu dio bere gertuko inguruari. Operazio honek ez du gure herrian bake agertoki bat eraikitzen laguntzen. Josu Urrutikoetxea izan da bakearen aldeko konpromiso handiena erakutsi duen etakideetako bat. Hain zuzen, berak jarri zion ahotsa ETA desegin zeneko agiriari. Beraz, bera dugu bakearen aldeko ekarpena egin zuenetako bat, ETArekin indarkeria euskal politikagintzako ekuazio politikotik behin betirako atera zuenetako bat.

Operazio honek beste behin ere agerian jartzen du askotan esan duguna: zorritzarez

bakeak herri honetan eta estatuetan etsai boteretsuak izaten jarraitzen du. Bi estatuek azken atxiloketekin adierazten dute bakearen aldeko apustu horretan oztupo izaten jarraitzen dutela. Herri honetan bake oso, justu eta iraunkor bat oztopatzen jarraitzen dute. Euskal gizartearen nahirik eta desiorik handienari eraso egiten jarraitzen dute.

ETA desagertu zen, ETArekin biolentzia betiko desagertu zen baina herri honetan biolentziak izan badira: estatuen biolentziek indarrean jarraitzen dute. Azken batean, dispersio politika indarrean mantentzea ere biolentzia da. Gaixorik larri diren presoak espetxean mantentzea biolentzia da. Onen eta

gaiztoen, justuen eta injustuen, garaileen eta garaituen errelato bat inposatzen saiatzea ere biolentzia delako. Eta, nola ez, Euskal Herriaren, Kataluniaren eta Estatuko gainerako herrien autodeterminazio eskubidea indarrez galaraztea ere biolentzia delako.

Zentzu horretan, dei egiten diegu estatuei eta PSOeri egin dezatela behingoz, bere garaian ezker abertzaleak egin zuen bezalaxe, estrategia demokratiko eta baketsu baten aldeko apustua. Egin diezaiotela behingoz uko beren biolentziari. Egin dezatela behingoz apustu bakearen alde, demokraziaren alde eta herri honen eskubide nazionalak eta sozialak errespetatzearen alde.

Bakearen etsaiak berandu datoz, ez dutelako lortu herri honen bakeranzko bidea galarazterik. Orain ere, ez dute lortuko. Euskal gizarteak aspaldi egin zuen hautua bake eta askatasun agertoki baten aldekoa. Erasoak eraso, oztopoak oztopo, ez estatuek ez bakearen etsai amorratuenean ere ez dute lortuko herri honen determinazioa galaraztea.

Sortuk polizia operazioa salatzeko, Urrutikoetxearen askatasuna exijitzeko eta askatasunaren aldeko apustu irmoa erakusteko, maiatzaren 26an bakearen eta askatasunaren apustu irmoa hautetsontzietan erakustera deitzen du, EH Bildu bozkatuz.

Sortu Usurbil

Aginagako eskola-kideen topaketa

Aginagako Eskolako komunitateak ekainaren 9ko jaialdi aurreko festa eguna ospatuko du larunbat honetan. Eskolak izan dituen hamarkadotako ikasle, irakasle, guraso eta gainerako kideak batuko dituzte bi hitzorduren bueltan; batetik, Aginagako Elizan hurrengo hamabostaldian ikusgai izan eta larunbatean bertan 12:00etan zabalduko duten argazki erakusketa baten bueltan. Eta segidan, Aginaga Sagardotegiak sukaldatuko duen bazkarian elkartuko dira.

Aurkezpena

Ekainaren 9an ospatuko duten Gipuzkoako Eskola Txikien jaialdiaren atarian dira Aginagan. Jaialdi honen inguruko xehetasunak eskainiko dituzte



Eskolatik pasa diren ikasle, irakasle, guraso eta gainerako kideak batu nahi dituzte larunbat honetarako prestatu duten ospakizunean.

eskola kideek, hilaren 29rako deitu duten prentsaurrekoan. Aginagako nahiz Gipuzkoako eskola txikien ordezkariak bilduko ditu 12:00etan ikastetxean bertan finkatu duten hitzorduak. “Bertan azalduko

dute gaur egungo eskola txikien egoera, herri eta auzoetan betetzen duten funtzio garrantzitsua, lurralde orekan duen eragin positiboa, eta batik bat, ekainaren 9ko festa egunaren nondik norakoak”.

Ika-mika

Kutsatuko gaituzte

Hernaniko Biteri Kultur etxean apirilaren 13an zegoen hitzaldiko karteltxoak zioen: “Honela kutsatzen dute erraustegi modernoek”, eta egun bat lehenago BERRIA egunkariak (gomendagarria) zekarren holandar toxikologo adituaren elkarrizketa irakurri eta bertaratu nintzen.

Herbehereetako erraustegi berriak (2011n martxan jarria) sortzen duen kutsaduraz jardun zitzaigun holandar aditua. Bere ikerketa, erraustegiaren inguruko (2 kilometro) belar eta arrautzetan topatu duten dioxina eta furanoa (oso kutsakorrak) askoz handiagoa dela azaldu zigun, zenbaki eta datuen bidez pantailan erakutsitako dokumentuetan, eta frogatu dute erraustegiak eragindako kutsadura dela.

2018ko martxoan, Bartzelonako Biomedikuntzako Ikerketetako Institutuko irakaslea, eta Europar Batasuneko osasun

arriku berrien Batzorde Zientifikoko kide ohia den Eduard Rodriguez Farrè eta Fernando Palacios doktoreek plazaratu zuten txosten perizial eta zientifikoa (hitzartu.eus ikus daiteke) ezagutu genuen. Txosten honen, Eusko Jaurlaritzak 2016ko apirilaren 11n Zubietako erraustegiari emandako Ingurumen Baimen Bateratua aztertu eta ondorio nagusi honetara heldu dira zientzialariak. “Aztertutako Ingurumen Baimen Bateratuak ez du bermatzen osasuna, atmosferara isurtzen diren substantziekin kontrol eta mugarik ez baitu ezartzen. Inguruan barreatuko dira, landareetan, lurzoruan eta uretan”. Txostenak gogorarazten du, egungo legediak Ingurumen Baimen Bateratua herritarron osasunarentzat eta ingurumenerako arriskutsuak diren substantzien emisioa mugatu egin behar dela, eta Zubietako erraustegiari emandakoak gabezia nabar-

menak ditu. Ikerketak nabarrian uzten du beste behin, izan erraustegi zaharretan edo izan European martxan diren erraustegi modernoetan, kasu guztietan, agerikoa dela hondakinak erraustea inguruan bizi diren herritarrei eragiten dizkieten “patologia serioak”.

Neurriak hartzen ez badira gainera, erraustegiaren emisioetan substantzia berrien agerpenak, “orain arte argitaratu izan diren datuen bidez ezagutzen duguna baino eragin are serioagoa izango du pertsonen osasun eta ingurumenean”. Usurbil, Zubietako, Lasarte eta Urnieta 1-3 kilometrotara gaude eta Andoain eta Igara 3-5 kilometrotara. Zenbat eta gertuago orduan eta arrisku gehiago.

Errealitate gordin eta latz honen aurrean, erraustegiak bultzatu eta babesten duten alderdi politikoetako buruzagiak, presaka araudia aldatu eta hitz ponpoxoekin eraikinaren onu-

Errigorako produktuen banaketa

Gogoan izan, maiatza amaieran jasoko ditugu martxoan zehar, Errigoraren udaberriko kanpainaren baitan eskatu zenuzuten Nafarroa hegoaldean ekoiztako kontserbata eta arroz-loteak. Produktuok NOAUA!ra heltzean jarriko gara zuekin hartuemanetan. Loteok biltzerakoan egin beharko dituzue ordainketak.

Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea

Usurbilgo Gure Pakeak, Santueneko Gure Elkarretak eta Aginagako Arrate elkarretak deitutako hileroko bizi eta pentsio duinen aldeko mobilizazioa, astebete barru, maiatzaren 30ean 19:00etan Mikel Laboa plazan.

rak aipatzen ikusi eta entzun ditugu egun hauetan, erraustegiaren bultzatzaileak argindarraren onurak aipatzen dizkigute, baina, inoiz entzun diozue kutsadura produktuko duela esaten? Biztanleok ez al dugu jakiteko eskubiderik?

Egun hauetan, Usurbilgo kaleetan itsatsirik azaldu diren karteltxoetan, erraustegia babesten duten alderdi politikoak zein diren azalduz, ondorengo esaldia dakar, “Nik, natura eta persona guztien osasuna babesten ditudalako, hauteskunde hauetan ez diet nere botoa emango... Eta zuk?”.

Erraustegiaren bultzatzaile diren alderdiak erakutsi didaten kiratsa darion mugarik gabeko harrokeriaren aurrean, nik ere ez diet nire botoa emango eta guztion osasuna babestuko dut erraustegiaren aurka daudenei emanez, eta karteltxoaren galdera ikurrarekin bat eginez... eta zuk?

Orkatz*

“Denok daukagu zer esana feminismoaren inguruan”

Martxoaren 8aren ondotik, herriko hainbat emakumek bilera irekiak egin dituzte orduko baloratu eta bide horri jarraiki pausu berriak emateko. Datosen hasteetarako film proiektzioak antolatu dituzte bileren fruitu gisa eta udazkenerako prozesu berri bat martxan jartzeari dute helburu, proiektuari forma eman nahian. Garazi Lizasorekin izan da NOAUA! xehetasun gehiago biltzeko.

NOAUA! Martxoaren 8ko grebaren ostetik pare bat hilabete pasatu dira. Zer-nolako balantzea egin duzue?

Garazi Lizaso. Oso balantze positiboa egiten dugu, denok poz-ozko geratu ginen emaitzarekin, baina aldi berean, argi daukagu ez dugula emaitza bakarrik baloratu behar. Bide baten emaitza da, baina bide horrek jarraipena izan behar du.

Ondoren berriz, hainbat bilera egin dituzue. Zer eman dute horiek?

Martxoaren 8ko grebaren ondoren bilera bat deitu genuen



Udazkenerako prozesu berri bat martxan jartzea dute helburu.

GARAZI LIZASO

“Belaunaldi ezberdinak batzea da erronka handietako bat; iruditzen zaigu potentzial izugarria sor daitekeela nahasketa horretatik”

eta bertan, balorazioa egiteaz gain, genituen erronkak irudikatu genituen, bakoitzaren usteak konpartituta. Erronka ugari ikusi genituen: bost ardatzetan sakontzea alde bate-

tik, bizitzak erdigunean jarri behar ditugula, lana enplegutik haratago doala, emakumeek bizitza guztia lanean emana-gatik pentsio duinik ba ote duten, alarguntasun pentsio miserableak azaleratu genituen... Erronka modura planteatu genuen baita ere borroka hau martxoaren 8tik haratago doala, egunero eragiten digun zerbait dela patriarkatua eta egunero eragiten digun zerbait dela esnatzen garen momentutik ohean sartzen garen artean. Seguraski ametsetan ere hor

izango dugu, ez? Kar kar kar. Belaunaldi ezberdinak batzea ere erronka handietako bat da; iruditzen zaigu potentzial izugarria sor daitekeela nahasketa horretatik. Emakume eta emakume hitza izartxoarekin erabiltzen ditugun gainerako identitateak gay, lesbiana, trans... horiei ere lekua egin behar diegu gure artean eta begirada interseksionala izan behar dugu erlijio, arraza, estatus ekonomikoa, adina, orientazio sexuala, formazioa... zapalkuntzak askotarikoak izan daitezke eta horiek guztiak uztartzea bada erronka bat, eta horien guztien beharrei erantzutea ematea zer esanik ez. Guk ere baditugu pribilegio batzuk azal zurikoak garelako eta ez gaudelako egoera irregular batean. Beste erronketako bat Usurbilen gune edo talde feminista bat edo batzuk sortzea litzateke eta behin amesten hasita, guztiok aske izango garen Usurbil edo Euskal Herri bat sortzea. Azken hori utopia bat litzateke, baina halakoak ere izan behar dira. Erronkak ez zaizkigu falta.

80 egunean filma proiektatuko dute datorren astean frontoian

NOAUA! Maiatzaren amaieran eta ekainean proiektzioak emango dituzue frontoian. Zer eskainiko duzue eta zein da horien helburua?

Garazi Lizaso. Guk uste dugu izugarritzko plana eskaintzera goazela. Ostegunetan pintxo poteari lotuta, zertxobait luzatu eta 9:00ak edo 9:30ak aldera frontoian bideo emanaldi batzuk eskaini nahi ditugu. Lehena maiatzaren 30ean, ostegunetik izango da eta “80 Egunean” film euskalduna proiektatuko dugu. Baserrri giroan kokatzen da Euskal Herrian eta protagonista izango ditu adineko bi emakume. Lesbianismoaren gaia jorratzen du. Bi-

garren pelikula ekainaren 13an izango da, baita ere ostegunetik eta bertan “La Chica Danesa” eskainiko dugu. Kasu horretan, transexualitatearen gaia jorratuko dugu, batez ere keinu bat egin nahi izan diogu nahiz eta gaiak ez datozen erabat bat, ekainaren 2ko sexu langileen nazioarteko egunari eta ekainaren 28ko nazioarteko sexu askapenerako egunari. Esan dezakegu Lurdes Hueta herri-tarrak martxoaren 8an eginiko argazki lan ugari izan ditugula eskuartean eta ez dugu gehiagi aurreratu nahi, baina herriko zenbait tabernetan erakusketa-txoaren bat ager litekeela. Beraz, adi egon eta poteatu pixka

bat, kar kar kar.

Talde feminista sortzeko prozesua martxan jarri nahi duzue. Nolako prozesua izango da?

Martxoaren 8aren ostean hainbat bilera egin ditugu eta iritsi gara puntu batera non erabaki behar dugun eta nahi dugun gure proiektuari zein forma eman edo norantz jo. Gero erabakiko dugu talde feminista izango den edo zein forma izango duen edo zer gune nahi den edo dena delakoa. Beraz, nahi duguna da prozesu bat martxan jartzea gure behar eta nahiak mahai gainean jartzeko eta hortik

aurrera ikusi zein ardua hartu nahi ditugun, zer gozatu nahi dugun. Azpimarratzekoa da hamar bat pertsona biltzen garela bileretan eta belaunaldi ezberdinetakoak gainera. 60 urte ingurukoak daude, 50ekoak, 40 inguru, 30, 25, 20... nire ustez, hori oso aberasgarria da. Udazken aldera, ikasturte berriarekin prozesu horri hasiera eman nahi diegu. Denok daukagu zer esana feminismoaren inguruan, zer partekatu eta horrek ere neurri handi batean herri egiten gaitu. Beraz, animatu denok polita izango baita eta denok gozatuko dugu, seguru gaudete.

“Ipuinak, sexu heziketaz blai” saioak guraso eta hezitzaileentzat

Gurasoekin egin izan dituzten tailerretan agertu izan den zalantza edo kezketako bati helduko dio Usurbilgo Udaleko Sexu Aholkularitza Gunea Sutegei udal liburutegiarekin elkarlanean, datorren asterako, maiatzaren 27 eta 29rako antolatu dituen “Ipuinak, sexu heziketaz blai” izeneko bi orientazio saioetan. Guraso, tutore edota hezitzaileak noiz eta nola jorrratzen hasi daitezkeen sexualitatearen gaia, haur, gaztetxo edota seme-alabekin, hortxe jorrratuko duten gaia.

Elene Jimenez sexologo eta sexu aholkularitza guneko arduradunak argi du, “haurrekin txikiak direnetik has gaitezke sexualitatearekin lotutako gaiez hitz egiten”. Batzuetan haur eta gaztetxoak beraiek dira jakinminez galdetzen hasten direnak. “Bapatean, ezustean agertzen dira galderak eta askotan erantzunak ez ditugu pentsatuak. Naturalki erantzun nahi baina ezin jakin une egokia ote den, noraino azaldu, nola egokitu haurren adinari, adin bakoitzeko interesak zeintzuk diren... Askotan erantzundakoarekin ere ez gara oso gustura geratzen”, dio Jimenezek. Zailtasunak sortzen dira. “Ez da elkarrizketa arrunt bat, ez zaigu normalean gai honi buruz hitz egitea sortzen. Drama egin gabe, goazen horretarako errazten diguten moduak bilatzera. Ipuin edo film bat izan daiteke horretarako bidea”.

Egoerok kudeatzen asmatzeko, liburuak proposatuko dira. Ez liburuetan galderon erantzunak egongo direlako. Liburuak sexualitateaz hitz egiten hasteko, komunikazio bidea errazteko aitzakia edo laguntza gisa baliatuko dira.



Maiatzaren 27rako eta 29rako orientazio saioak antolatu dituzte.

ELENE JIMENEZ

“Drama egin gabe, goazen horretarako errazten diguten moduak bilatzera. Ipuin edo film bat izan daiteke horretarako bidea”

“Liburuotan hainbat gai aztertuko ditugu, askotan jorrratuak ez dauden gaiak ateratzeko modua izango da. Hitz egiten hasi eta duten jakinmin hori elikatu edo jorrratzeko aitzakiak”, Jimenezek NOAUA!ri argitu dionez. Liburuak bitarteko paregabatzat jotzen ditu sexu aholkularitza guneko arduradunak, gurasoekin batera irakurketak egiten dituzten haurrei “ideiak helarazi edo horren harira hitz egiteko”.

Sexologiaz modu zabalean aritzeko

Horretaz jabetzea litzateke hurrengo asteko saioen helburua. Sexologiatik egiten duten lanketarekin bat dator ariketa hau Elene Jimenezentzat. “Gure lanaren ardatz nagusia da, gertatzen diren egoera, gertaera edo fenomenoak ulertzeko hainbat ideia luzatzea”. Sexologiaz modu zabalean jardutea. “Askotan argi aipatzen duguna da seme-alabak nondik datozen eta nahi gabe hori

da indartzen dena. Gainerakoa, batzuk jorrratzen dute, beste batzuk inoiz ez”, Jimenezen esanetan. Eta gainerako horretan guztian, mundu zabala dago. “Ez da hitz egiten, ni naizen neska berezi hori nolakoa den; nire gustuak, hitz egiteko modua, janzkera, zaletasunak estereotipoetan egon edo ez...”. Baina argi dio, horretan jarri behar da arreta gunea. “Nirea den hori indartu behar dut, nolakoa naizen. Bakoitzaren berezitasunei indarra ematea, bakoitza desberdina garelako. Erakarpenaz, maiteminaz, gustuko pertsonetaz, ligatzeko moduez, nolakoak ziren gure garaiak eta egungo haienak, gorputz sentazioez, jokaerez, harreman mota ezberdinez, familia erduez... Hori guztia ere sexualitatea da”.

Horretaz guztiaz hitz egiteak ahalbidetu dezake “beraiek ulertzea, zer ideia dituzten behatzea, zer nolako ideiak jasotzen ari diren, nolakoak diren, nola bizitzen duten beren gorputza...”. Eta horrekin guztiarekin, “erosoago bizi ditzakegu aldaketa guztiak, gai honen inguruko guraso eta seme-alaben arteko elkarrizketak bultzatu edo erraztu ditzakete”.

Tailerrotan ere hainbat argibide eskainiko dira. “Aitzakia polita da seme-alabekin gaiak

modu ludiko batean lantzeko”.

Gurasoei zuzenduriko saioak

■ Ordua: 18:00.

■ Tokia: Sutegei udal liburutegia.

■ Egunak:

-Maiatzak 27, astelehena: 8-11 urte artekoentzat.

-Maiatzak 29, asteazkena: 2-7 artekoentzat.

■ Izen ematea: maiatzaren 27ra arte liburutegian.

Sexu Aholkularitza Gunea

Hilabeteko lehen, hirugarren eta egongo balitz, bosgarren astearteetan zabalik izaten da Usurbilgo Udalaren zerbitzua, 17:00-19:00 artean. Udako etenaldiaren aurretik, azken aldiz, ekainaren 4an eta 18an zabalduko dute gunea. Uztaila eta abuztuko etenaldiaren ostean, irailean berriz martxan izango da. Aurrez hitzordua eskatu edo informazio gehiago jasotzeko:

■ sexuaholku@usurbil.eus

■ 697 919 516

■ Kale Nagusia 43, behea (Gizarte Zerbitzuen egoitza).

Zirimara, ikasturte berrira begira

Aurreko asteko aurkezpen ekitaldien ostean, Zirimara eskolaz kanpoko aisialdi egitasmo eraberritua ezagutzeko ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte proiektuko sustatzaileek; Udarregi Ikastolak, Usurbilgo Udalak eta NOAUA! K.E.-k. Azken saioa, ostegunean (maiatzak 23) 16:30-18:30 artean Oiardo Kiroldegian. Zirimarako dinamika ezagutzeko aukera aproposa. Adi bestalde, 2019-20 ikasturterako izen emateko tartea zabalduko da astebete barru, maiatzaren 31tik ekainaren 7ra. Deialdia LH osoko, hau da LH 1-6 maila arteko ikasleei zuzendua egongo da.

Igandeko hauteskundeetan bozka emateko lekuak eta ordutegiak

Maiatzaren 26ko hitzorduak

■ 8:00 Hauteslekuetan egon beharko dute, mahaietan lan egitea egokitu zaien herritarrek. Bozketaren gunea prestatu beharko dute.

■ 9:00 Hauteslekuen irekiera.

■ 9:00-20:00 Bozkatzeko epea. Egunean zehar, hauteskundeotako parte hartze datuak emango dira ezagutzera.

■ 20:00 Hauteslekuen itxiera eta bozken zenbaketa.

Udal, foru eta Europako hauteskundeak

■ Orduetgia: 9:00-20:00.

■ Hauteslekuak: Kaxkoan Udarregi Ikastola, Haur Eskola Kalezarren, Lanbide Eskola Zubietan (Usurbil aldean bizi direnentzat. Donostia aldekoek Zubietako Eskola Txikian bozkatu beharko dute), Santuenea Auzo Elkarte eta Aginagako Eskola. Norbera non dagoen erroldatua, hautesleku batean edo bestean bozkatu beharko du. Ez ahaztu nortasun agiria eramatea.

■ Egongo diren hautetsontzi kopurua: 3.

■ Bozkatu ahalko dena:

-Usurbilgo Udal hauteskundeetara



Igandean, iluntzeko 20:00etan itxiko dira hauteslekuak.

ZUBIETA

Herri Batzarreko ordezkariak hautatzeko aukera izango dute zubietarrek. Bozka Alamandegiko etxean eman beharko dute

tara aurkeztu diren bost hautagai zerrendetako bat.

-Gipuzkoako foru hauteskundeetara aurkeztu diren zazpi hautagai zerrendetako bat.

-Europako hauteskundeetara aurkeztu diren 32 hautagai ze-

rrendetako bat.

Zubietako Herri Batzarreko hauteskundeak

■ Orduetgia: 9:00-20:00.

■ Tokia: Alamandegiko etxea.

■ Hautetsontzi kopurua: 1.

■ Bozkatu ahalko dena:

-Usurbil aldeko zubietarrek hauteskundeotarako aurkeztu diren bi hautagaietako bat hautatu ahalko dute.

-Donostia aldeko zubietarrek hauteskundeotara aurkeztu diren hiru hautagaietako bat hautatu ahalko dute.

Jarraipena NOAUA! bidez

Aste honetan argitaraturiko hauteskunde programarekin akabo, hilabeteko tartean izan dugun bigarren hauteskunde kanpaina ere. Igandean (maiatzak 26) bozketaren eguna Usurbilen; udal, foru eta Europako hauteskundeak. Zubietan Herri Batzarra berritzeko aukera ere izango dute.

Sare sozialetan eta noaua.eus web orrian

Emaitzen berri, noaua.eus atarian eta sare sozialen bidez zabalduko dugu igandean bertan, baita astebe- te barruko aldizkarian ere.

Maiatzaren 24an, posta bidez bozkatzeko azken aukera

Adi, Hauteskunde Batzorde Zentralak bi egunez luzatu ostean, ostiral honetan amaituko da, maiatzaren 26ko hauteskundeetarako posta bidez bozkatzeko epea. 14:00ak baino lehen gerturatu Correosera, modu honetan bozkatzea eskatu baduzu, egunotan jasoko zenuen dokumentazioarekin.

Maiatzaren 23an, mahaikideentzako bilera

Maiatzaren 26ko udal, foru eta Europako hauteskunde egunez osatuko diren botoa emateko mahaietarako 72

herritar hautatu ziren, apirilaren 30ean egin zen osoko ohiko bilkuran. Usurbilen mahaikide izatea egokitu

zaizuenontzako, ohi bezala, informazio bilera deitu da udaletxean, maiatzaren 23an, arratsaldeko 19:30ean.

Eskuliburua eraman

Mahaikideok jaso duzuen eskuliburua bilerara eramatea eskatzen da.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4 Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17 20170 USURBIL

Matrikulazio garaia Zumarten

2019-20 ikasturterako matrikulazio garaia ate joka dute Zumarte Musika Eskolan. Adi xehetasun hauei:

- Epea: maiatzak 27-31.
- Ordutegia: astelehen, astearte eta ostegun goizez, 10:30-12:30 artean; astearte, ostegun eta ostiral arratsaldez, 16:30-19:00 artean.
- Izen ematea: matrikula inprimakia zumarte.eus web orrialdean on-line bete eta bidali edo inprimakia eskuz bete eta musika eskolako bulegoan aurkeztu (Puntapax 10, behea).
- Eskaintza: Musika Txokoa, Musika Mintzaira, instrumentuak, abesbatza, talde instrumentala...

Oharrak:

- Iazko matrikula eta kuota prezioak mantenduko dira.
- Plaza banaketaren arautegi berria aplikatuko da. Adi, plaza banaketan lehentasuna Zumarteko ikasleek, gero Usurbilen bizi direnek eta hauen artean plazak banatu ostean, libre gelditzen direnak Usurbildik kanpo bizi direnen artean banatuko dira.
- Plaza kopuruen zozketak egin eta onartutako ikasleen zerrendak argitaratu ondoren, ekaina erdialdera, ikaslea onartua izan den ikasgaien matrikulagatik ordaindu beharreko tasa zuek adierazitako kontu



Trikitixa-pandero taldea Alegria-Dulantziko Musikaldin izan zen aurreko larunbatean. Argazkia: Zumarte.

MAIATZAK 27-31

“Astelehen, astearte eta ostegun goizez, 10:30-12:30 artean. Astearte, ostegun eta ostiral arratsaldez, 16:30-19:00 artean”

korrontetik kobratuko da.

- Tronboia, saxofoia, tronpeta edo biolina ikasten hasten direnei, nahi izanez gero eta ikasleentzat egokiak badira, Zumartek dituen instrumentuak urtebetez utziko zaizkie.

Hobariak:

- Familia ugarietan %40ko deskontua matrikula prezioan ikasle gazteenari. Horretarako, familia ugarien txartela aurkeztu bulegoan.
- Familia unitate bereko 3 senide edo gehiago matrikulatuta dauden kasuetan ere, %40ko deskontua ikasle gazteenari.

Ikasle gazteenak bixkiak izanez gero, ikasle bati bakarrik egingo zaio deskontua.

Informazio gehiago:

zumarte.eus
bulegoa@zumarte.eus
943 371 594
Puntapax 10, behea.


Zumarteko ikasleak, Musikaldin

Herriko Musika Eskolen Jaialdia ospatu zen aurreko astean Arabako Alegria-Dulantzi herrian. Euskal Herriko 47 musika eskola eta 2.500 ikasletik gora bildu ziren bertan.

Ganbera taldeak, abesbatzak, musika tradizionalako taldeak-comboak, bandak, dantzak, orkestrak eta kalejira talde desberdinak aritu ziren. Zumarte Musika Eskolako trikitixa-pandero taldea ere bertan izan zen kalejiran parte hartzen.

Iruingo sagardoa irabazle AEBetan

Atzerrian “Barrika, Basque Country Cider” izeneko sagardoa banatzen duen Iruin Sagardotegikoak pozarren dira. Mundu mailako hitzordu entzutetsuena den GLINTCAP 2019 txapelketako irabazlea dugu Zubietako sagardotegia. Zorionak! Pasa den asteburuan ospatu zen Michiganen “Great Lakes International Cider and Perry Competition” txapelketaren hamalagarren edizioa. Urrezko domina irabazten duen bigarren aldia du Iruinek, iaz ere irabazle izan baitziren, sagardo naturalaren kategorian. 2015ean brontzezkoa ere irabazi zuten, 2016koan zilarrezkoa. 2009tik Japonen eta 2017tik AEBetan dastagai dute Barrika sagardoa.



2009tik Japonen eta 2017tik AEBetan dastagai dute Barrika sagardoa.

“Infernu honetan erotzeko beldur bazara idatz itzazu olerkiak”

Joxan Artzeren hitzok bere egin ditu Txakur Gorria kolektiboak. Martxoan, “H-Artzetik poesia musu zapietan” izeneko ikuskizuna taularatu zuten Bilboko Loraldia jaialdian. Ostiral honetan Sutegin izango dira. Emanaldirako sarrerak aurretik eskura ditzakezue Lizardi dendan.

“Belaunaldi gazteak La-boaren ahotsean, ereserki bi-

lakatuta, herrikoak diruditen poemetan kamuflatuta jaso du Joxan Artze poetaren lana. Txakur Gorria irudia eta hitza lantzen duen kolektiboak eskertze keinu xume bat egin nahi dio iaz utzi gintuen poetari”. Loraldia jaialdiaren esanetan, “heriotzak hurbildu ditu sortzaile gazte hauek haren bizitzara. Izan ere, zubi bat eraiki nahi dute bi garaien ar-

tean. Artzeren mundutik hartzera ausartuko dira eta garuko begiradan islatuko dute horren berritzailea izan zen unibertso poetikoa”.

Maiatzak 24, ostirala

- 20:00etan, Sutegin.
- Oholtzan: Malen Amenabar, Mariñe Arboe, Ane Labaka, Nerea Ibarzabal, Peru Galbete.
- Sarrerak: Lizardin 8 euro al-



Ostiralean Sutegin, Txakur Gorria kolektiboa eta Peru Galbete. Jexux Artze KE-k antolatuta du emanaldia.

dez aurretik, 10 euro egun berean (lehiatilan).





Irudi gehiago web orrialdean topatuko dituzue, noaua.eus/galeriak/ estekan.

Egilea: Maria Jesus Etxeberria.

Inaxio Rotetaren sagardoarentzat izan zen lehen saria

Duela hiru urteko Sagardo Egunean, egurrezko kupelan eginiko sagardo onena saritzen hasi ziren. Lehen bi edizioetan Urdaira baserriko Patxi Azkonobieta nagusitu zen. Aurtengo emaitza ezberdina izan da. Inaxio Rotetak hartu du Azkonobietaren lekukoa. Urdako sagardoarentzat izan baita lehen saria. Bigarren eta hirugarren sariak aldiz, jabe berbera izan zuten: Aginagako Kupela Kupela taldea.

800 euroko saria

Inaxio Rotetak 800 euro eta Usurbilgo Herriko Etxea sari



Inaxio Rotetak Xabier Arregiren eskutik jaso zuen lehen saria. Bigarren eta hirugarren sariak Aginagako Kupela Kupela taldearentzat izan ziren.

nagusiaren ziurtagiria eskuratu zituen.

Juan Zuriarrain enologoak, Dani Corman ardo saltzai-

leak eta Demetrio Terradillos Ataungo Urbitarte sagardotegikoak osatu zuten lehiaketako epaimahaia.

Adaildo Da Silva, muztio lehiaketako protagonista

Botatzailen lehia aspaldikoa da Sagardo Egunean. Aurten, beste bi sariketa zeuden jokoan: egurrezko kupelan eginiko sagardo onena eta muztiorik onena aukeratzeko lehiaketak. Muztio lehiaketan, Adaildo Da Silvak lehen eta hirugarren sariak irabazi zituen. Iker Agirrezabalarentzat izan zen bigarren saria.

Sagardo lehiaketako epaimahai bera aritu zen muztio lehiaketan.



Adaildo Da Silvak lehen eta hirugarren sariak eskuratu zituen. Iker Agirrezabalak bigarren saria eskuratu zuen.

Botatzaile sarituak, pozarren



Iaz bezala, Anartz Aizpurua nagusitu zen sagardo botatzaileen lehiaketan. Joseba Bengoetxea bigarren izan zen eta Olatz Arregi hirugarren. Zorionak!

Aginagako Eskolaren zozketa



Igandeko errifan, Maria Jesus Korta izan zen saritua. 9.527 zenbakiari esker irabazi zuen zozketa. Aginagako Eskolako guraso eta haurren eskutik jaso zuen saria.

Imanol Agirretxe: "Euriak ez digu batere beldurrik ematen"

Imanol Agirretxe futbolari ohiak eman zion hasiera Sagardo Egunean. Oholtza gainean zela, hitz batzuk egin zituen jendaurrean. Atertu gabe ari zuen baina hori ez zela arazo izango aurreratu zuen Agirretxek: "euriak ez digu batere beldurrik ematen usurbildarroi. Beraz, sagardoarekin gozatu, hau gurea dela, eta ondo pasa. Eman egurra".



Aitor Agirrek eskaini zion agurreko dantza Agirretxeri.

Sakabanaketarekin amaitzea eskatu zuten txotx eginez

Herrian falta direnak oroitze-ko tartea hartu zen igandeko Sagardo Egunean. Jada aske behar luketen arren, Valentziako Picassenteko espetxean segitzen duten Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta Xuari elkartasuna adierazi eta haien eskubideak babesteko elkarretaratzea egin zen Ernairen karpagunean.

Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik albiste baten berri eman zuten; Patxi Urangari bigarren gradua aplikatu diote.

Elkarretaratzea

Usurbilen Nahi Ditugu bilgunek deitutako hileroko azken ostiraleko elkarretaratzea astebete barru izango da, maiatzaren 31n 20:00etan Mikel Laboa plazan. Olatz Lasagabasterren urtebetetze argazkia aterako da.



Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta Xuari elkartasuna adierazi zieten.

USURBIL BATEGINIK



EAJ-PNV.EUS



MIREN JOSUNE URKOLA LARRARTE
USURBILGEO ALKATEZARAKO HAUTAGAILA



EMAN BOTOA



EH Bildu koalizioaren hautes-programa



"Elkarrekin burujabe da gure leloa eta mamia. Izan ere, guretzat burujabetza ez da esanahi bakarrekoa. Poliedrikoa da. Behetik gora eraikitzen da, herrietatik Euskal Herrirako norabidean, eta, nagusiki, gugandik hasten da".

NOAUA! Zeintzuk dira zure koalizioak osatu duen hautes-programaren ildo nagusiak?

Agurtzane Solaberrieta, EH Bildu. Ezer baino lehen garrantzitsua da testuinguruari erreparatzea, izan ere, ez datoz garai errazak. Usurbil dagoen tokian egonda, Donostiatik hain gertu, bi aukeren arteko lehian bizi da: Donostialdean kaiolatu eta praktikan Donostiako auzo bihurtu, edo herri-nortasunari eutsi, izaera propioa zainduz eta indartuz. Guk, noski, bigarrenaren aldeko hautua egiten dugu. Donostiaren neurrigabeko politika espansionistak gure herri-proiektua urardotu ez dezan, tresna eta egitasmo indartsuak behar ditugu, herri gisa ahaldundu eta gure balore eta izaerari eusteko. Eta, gure herri-programa norabide horretan egin dugu. Hain justu, 2021ean 650 urte beteko dira

Usurbil herri burujabe bihurtu zela, eta efemeride historiko hori baliatu nahi izan dugu, datorren legealdian garatuko dugun lanari zentzia eta norabidea emateko. Elkarrekin burujabe da gure leloa eta mamia. Izan ere, guretzat burujabetza ez da esanahi bakarrekoa. Poliedrikoa da. Behetik gora eraikitzen da, herrietatik Euskal Herrirako norabidean, eta, nagusiki, gugandik hasten da. Eta horregatik burujabetza ardatz duten egitasmoak ere sustatu nahi ditugu, izan burujabetza energetikoari lotutakoak, elikadura-burujabetza edota gorputz burujabetza. Gurea zaindu, gurea babestu, eta gurea indartzen edota sustatzen duten proiektuak. 100dik gora proposamen biltzen ditu gure programak. Eta herri-programa hau elkarrekin egin nahi dugu. Usurbil osatzen duten herri/auzo guztiekin

eta herritar ororekin.

Edonola ere, honako bost egitasmo hauek nabarmendu nahi ditut:

1) Autobus geltoki berria ezinbestekotzat dugu, mugikortasuna nabarmen hobetzeko.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berridaztearekin batera, legealdi honetan herriko espazio publikoa berrantolatzeke prozesua gauzatu da, eta horren emaitza izan da Mugikortasun Plana. Plan horrek jomuga bat eta bide bat planteatzen ditu, Usurbil jasangarria, irisgarria eta bizigarria lortzeko. 50etik gora ekintza jasotzen dira, eta hurrengo legealdian, ahal direnei bederen, bide ematea dagokigu. Horien artean, edonola ere, ezinbestekotzat ditugu Ostapeko sarrerako biribilgunea eta autobus-geltoki berria. Biak ala biak eskutik lotuta doaz,

“100dik gora proposamen biltzen ditu gure programak. Eta herri-programa hau elkarrekin egin nahi dugu. Usurbil osatzen duten herri/auzo guztiekin eta herritar oroekin”

eta biak ala biak dira estrategikoak gure herriaren mugikortasuna nabarmen hobetzeko, eta, horrekin batera, garraio publikoa indartzeko.

2) Emakumeen Etxea sortuko dugu, emakumeon ahalduntzea sustatzeko.

Parekidetasuna helburu ez ezik, zehar-lerrotzat du EHBilduk, izan ere, ikuspegi feministak udal-politika oro blaitu behar du. Hurrengo legealdian emakumeontzat toki erreferentziala izango dena sortuko dugu: Emakumeon Etxea. Berdintasunaren bidean aurrera egiteko ideiak, indarrak, proiektuak eta borrokak batzeko topagunea, eta herriko emakumeok, elkarteak eta talde feministak elkartzeko espazioa. Udal-eraikin bat jarriko dugu proiektu honen zerbitzura, eta parte hartzeko prozesu bat abiatuko dugu gune berri horren izaera, espazioaren antolamendua eta funtzionamendua emakumeon artean eztabaidatu eta adosteko.

3) Txirikorda egitasmoa, etxebizitza eta zaintza-eredu berri baten oinarri.

Emantzipatu nahian dauden gazteei eta bakarrik bizi diren adinekoei soluzio bat emateko, Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioaren proiektua sortu da legealdi honetan. Txirikorda, beraz, herriko gazteek eta adinekoek partekatuko duten bizigune bat izango da. Etxebizitzaren arazoari beste perspektiba batez begiratu, eta lau pareta dituen eraikin bat eraikitzeaz harago, bestelako balio eta ezaugarri batzuetan zimendutako bizigune bat izango da, harremanak, auzolana, elkarren arteko zaintza, izaera komunitarioa, autonomia, parte-hartzea eta ahalduntzea gisako balioak txirikordatuko dituen espazio publikoa, hain zuzen ere. Proiektu hau, gainera, alokairura bideratutako etxebizitzaren

parkea handitzeko oinarria izan daiteke, Txirikordako adineko erabiltzaileen jabetzako etxeak alokairura bideratzeko saiakera egingo dugu-eta.

4) Udala eta auzoen arteko harremana iraunkortzeko tresnak garatuko ditugu.

Auzo/herri guztien Usurbil sendotu nahi dugu, denok eroso eta gustura senti gaitzen gure udalerrian. Izan ere, gure udalerrira plurala eta aberatsa da, eta auzo/herriek garrantzi berezia hartzen dute. Tresna eta antolaketa egokiak behar ditugu, batetik, gure herriaren izaera aberatsari eusteko eta, bestetik, auzo/herriek ahots propioz eta modu iraunkorrean aritzeko udal-jardunean. Horrek, ezinbestean, udala eta auzoen arteko harremana artikulatzea eta arintzea eskatzen digu. Ez da erronka makala, baina gaiari adarretatik heldu, eta, behetik gora eraginez, auzo/herri guztiekin batera bide horretan aurrera egingo dugu. Bestetik, auzoen bizi kalitatea hobetzeko, puntu beltzei soluzioa eman eta auzoen arteko garraio publikoa ezartzeko aukera aztertuko dugu.

5) Kolore anitzeko herria.

Aniztasuna gizatasunaren aberastasun ikaragarria da, eta, ondorioz, aniztasunak Usurbil kohesionatzeko eta eraikitzeko elementu bilakatu behar du. Gaur egun, ia 40 jatorri ezberdin ditugu Usurbilen, eta datu horrek erakusten du zer-nolako aberastasun kulturala dugun. Ondorioz, inklusioa eta euskara ardatz, aniztasuna ikuspegi integralez kudeatzeko plangintza oso bat lantzeko konpromisoa hartzen dugu, elkarren ezagutzan eta elkarren aitortzan oinarritutako politikak garatzeko, kohesio soziala eta elkarbizitza helburu. Egitasmo horrek Santuenean izango du abiapuntua.

Udal zerrenda

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa.
2. Beñat Larrañaga Urdampilleta.
3. Lur Etxeberria Gurrutxaga.
4. Jose Maria Iribar Zapirain.
5. Aroa Etxeburua Ugartemendia.
6. Luken Arkarazo Silva.
7. Oskar Santamaria Picabea.
8. Itziar Basterrika Unanue.
9. Ainhoa Arrozpide Landa.
10. Nerea Goizueta Garmendia.
11. M. Alazne Olaizola Iparragirre.
12. Ana Isabel Eizagirre Sagardia.
13. Xabier Arregi Iparragirre.

Ordezkoak:

1. Fatimetou Hamadi Rguebi.
2. Eugenio Noriega Diez.
3. Isidra Navarro Del Amo.
4. Xuban Zubiria Elexpe.

Foru hauteskundeetarako zerrenda

- Juan Karlos Izagirre Hortelano.
Mirene Begiristain Zubillaga.
Ernesto Merino Amiama.
Eneritz Otamendi Goñi.
Jon Albizu Aguirrezabalaga.
Izar Hernando Ibero.
Andoni Iriondo Otxotorena.
Aitor Olaizola Urien.
Nora Galparsoro Larraza.
Irene Martinez Etxarri.
Ione Olatziregi Mendiorotz.
Diego Barrado Sanchez.
Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga.
Ane Fernandez Aranburu.
Javier Vitoria Roma.
Ana Sanroma Azkordobeitia.
Luis Intxauspe Arozamena.

Ordezkoak

- Jaime Nuñez Montoya.
Pablo Barrio Ramirez.
Oihana Agirre Gartzia.
Xabier Arregi Iparragirre.
Nerea Kortajarena Ibañez.

Europako hauteskundeak Eh Bildu-Orain Errepublikak

- Oriol Junqueras i Vies.
Pernando Barrena Arza.
Diana Riba i Giner.



EAJ-PNV alderdiaren hautes-programa



"Datozen urteetara begira izango ditugun erronkak kontrastatzen ibili gara eta lan horren emaitzak hamar puntu hauetan bildu ditugu. Hitz jario hutsak baina haratago, ekimen konkretuak eta zehatzak dira herri bezala aurrera joateko eta lehiakorra izateko".

NOAUA! Zeintzuk dira zure alderdiak osatu duen hautes-programaren ildo nagusiak?

Josune Urkola, EAJ-PNV. Bat eginik denontzako Usurbil eraikiko dugu.

Usurbilen etorkizuna denon artean eraikitzeko konpromezua hartzen duen taldea burutzen dut eta usurbildar guztien ongizatearen eta bizikaltatearen alde lan egiteko helburuarekin aurkezten gara.

Gure herriarekiko maitasunak, lanerako ahalmenak, ilusioak eta gogoak batzen gaitu, denontzako Usurbil bat eraikitzeko gogoak. Horretarako gure herriko ekonomia zein kultura

arloko eta gizarte eragileekin datoren urteetara begira izango ditugun erronkak kontrastatzen ibili gara eta lan horren emaitzak hamar puntu hauetan bildu ditugu. Hitz jario hutsak baina haratago, ekimen konkretuak eta zehatzak dira herri bezala aurrera joateko eta lehiakorra izateko.

Gure taldearentzat hauek izango dira udaletxeko mahai gainean lehentasun osoa izango duten gaiak. Usurbildarrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin bat eginik, elkarlanean, biharko Usurbil eraikitzeko prest gaude.

1- Usurbilgo sarrera nagusia berrantolatu.

Donostiatik datorren N-634 errepideko Usurbilgo sarrera eraberrituko dugu biribilgune batekin, herri barruko trafikoa mantsotuz eta Atallu industrialdera bizikletaz zein oinez joateko bidea garatuz, oinezkoei lehentasuna emanez eta Lasartera joango litzatekeen bidegorriarekin lotura eginez.

2- Euskal eskola publikoarentzat zorua jarri.

Gure herriak eskola publikoa izan dezan Eusko Jaurlaritzarekin elkar-

“Gure herriarekiko maitasunak, lanerako ahalmenak, ilusioak eta gogoak batzen gaitu, denontzako Usurbil bat eraikitzeko gogoak”

lana bultzatuko dugu eta lurzorua jarriko dugu. Egun Jaurilaritzako Hezkuntza Saila 2019-2022 aldirako inbertsio-planaren diseinua egiten ari da eta udalak lur-sail bat jarri behar du ikastetxe bat eraikitzeko prozedurak hasteko.

3- Jarduera ekonomikoa bultzatu.

Enpresen eta merkatarien egoera eta kezkak ezagutu eta gertutasunetik bideratuko ditugu, herriko ekonomia suspertzeko eragile bilakatu eta hutsik dauden eremuak berriro erabiltzeko modua eginez. Usurbilgo Udala bide-lagun bihurtuko dugu industria eta merkataritza proiektuak gauzatu daitezten.

4- Auzoetako irisgarritasuna hobetu.

Usurbil herri aldapatsua da eta Kaxkotik gertu dauden auzoetan, (Etxealdia edo Kalezar) irisgarritasun arloan ditugun gabeziak aztertu eta lehentasunak jarriko ditugu eta datozen lau urteetan proiektuak garatzeko beharrezko izango diren hitzarmenak sinatuko ditugu.

5- Kirol instalazio gabeziari erantzun.

Hainbat klubek egiten duten lana eta dagoen eskaria kontutan hartuta erantzun eraginkor bat landuko dugu. Horretarako instalazio estali bat eraikiko dugu egungo kiroldegiko ondoko Zelai Txiki futbol pareko enparantza borobilean, edota ikastola aurreko Gernika ibilbideko eremuan.

6- Hondakinen kudeaketa berrikusi.

Usurbil aitzindari izan da hondakinen bilketan. 11 urte igaro ondoren sistema berraztertu egingo dugu, gabeziak aitortu eta modu eraginkor eta merkeagoak proposatu, izan ere

egungo sistemak urtero 250.000 euro baino gehiagoko zuloa sortzen digu guztionak diren udal aurrekontuetan.

7- Auzoak bertaratu.

Beste ezaugarrietako bat auzo asko dituela da: Aginaga, Txokoalde, Santuenea, San Esteban, Kalezar eta Zubieta, batzuk herri inguruntik urruti ere bai. Hau konpontzeko herri barruko garraioa bultzatuko dugu.

8- Puntu beltzak landu eta irtenbidea eman.

Jakitun gara gure herriak dituen puntu beltzetaz, hala nola, Troia, Txokoalde, Etxealdia edota Santueneko zubia. Beharrezkoa deritzogu puntu hauei guztiei irtenbidea aurkitzea eta horretarako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurilaritzarekin plangintza adostu eta bateratu bat gauzatu dugu.

9- Landa eremuetakoen bizi kalitatea hobetu.

Landa eremuetako bizi kalitatea bermatuko dugu, baserriarekin elkarlanean baserri-bideen egoera aztertu eta berritzeko egoeran dauden berritzeko plangintza egingo dugu. Zelaien eta gune berdeen mantentze programak ere bultzatuko ditugu.

10- Bizikidetzatza landu.

Usurbildarron arteko elkarbizitza eta memoria landuko dugu. Horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen laguntzak erabiliko ditugu ekimenak gauzatzeko. Arrazoi politiko bat bera ere ezin da etikaren eta giza eskubideen errespetuaren oinarriko printzipioen gainetik jarri.

Udal zerrenda

1. Josune Urkola Larrarte.
2. Mirari Azurmendi Sorazu.
3. Carlos Perez Fraisoli.
4. Andoni Atxega San Sebastian.
5. Lourdes Jauregiberri Goenaga.
6. Agurtzane Egibar Artola.
7. M. Jose Ibarгойen Lizarazu.
8. Juan Maria Zubeldia Arrieta.
9. Jose Maria Zubiria Eguzkiza.
10. Juan Gorostidi Echeverria.
11. Esteban Goenaga Otegi.
12. Miren Elisabet Ecenarro Ganzarain.
13. Joseba Iñaki Illarramendi Echabe.

Ordezkoak:

1. Fernando Arrieta Olasagasti.

Foru hauteskundeetarako zerrenda

- Xabier Eceizabarrena Sainz.
Saioa Bandres Moneo.
Ianko Gamboa Sanz.
Maria Jesus Celaya Eguiguren.
Urkiri Salaberria Gracia.
David Rosco Jorge.
Zorione Etxezarraga Ortuondo.
Mari Mercedes Garmendia Bereciartu.
Markel Aranburu Bartau.
Aitana Aguirre Loyarte.
Martin Ibabe Eceiza.
Silvia Enrique Gomez.
Jon Antxordoki Rekondo.
Maria Otaegui Velez.
Kerman Orbegozo Uribe.
Nerea Zuberro Alberro.
Miren Jaione Hervas Saez de Arregui.

Ordezkoak

- Miren Estibaliz Iturbe Otaegui.
Jokin Garate Pujol.
Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga.

Europako hauteskundeak

Euzko Alderdi Jeltzalea, Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioa

- Izaskun Bilbao Barandica.
Andoni Aldekoa de la Torre.
Iñaki Aguirre Arizmendi.



PSE-EE alderdiaren hautes-programa: “Agenda sozialari eta zerbitzu publikoak hobetzeari lehentasuna emango diegu”

NOAUA! Zeintzuk dira zure alderdiak osatu duen hautes-programaren ildo nagusiak?

Patxi Suarez Perez, PSE-EE. Alderdi Sozialistaren hauteskunde-programa konpromiso etiko eta politiko bat da Usurbilen aurrerabiderako. Gardentasunaren, pluraltasunaren, bizikidetzaren eta gizarte-konpromisoaren printzipioen pean kudeatu nahi dugu, agenda sozialari eta zerbitzu publikoak hobetzeari lehentasuna emanez.

Kudeaketa-programa serio eta zorrotz bat proposatzen dizuegu gure herriaren garapen jasangarria bultzatzeko, aurrerabide ekonomikoa eta soziala lortzeko proiektu partekatatu batean.

Enplegua

Kalitateko enplegua bultzatzea eta lan-munduan txertatzea sustatzea tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bitartez.

Programa espezifikoak ezartzea lan-munduan txertatzeko arazo bereziak dituzten pertsonentzat.

Berdintasuna

Tokiko kontratazio publikoan enpresak berdintasunaren aldeko programak egitea bultzatuko duten adierazleak sustatu nahi ditugu.

Tratu-berdintasunerako udal plan bat bultzatzea.

Hezkuntza

Eskola Publiko bat eraikitzea Eusko Jaurlaritzari lagako zaion udal lursail batean.

Iragate ekologikoa eta zuzena

Gure udalerrian eraginkortasun energetikoarekin benetako konpromisoa hartzea.

Udal ekintzak sustatuko ditugu Naturklimarekin lankidetzan (Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioa).



“Kudeaketa-programa serio eta zorrotz bat proposatzen dizuegu”.

Sustapen ekonomikoa

Turismo-jarduera jasangarria sustatzea, enpleguaren kalitatearen eta sektorearen profesionalizazioaren printzipioen pean.

Tokiko saltoki txikiei laguntzeko eta babesteko planak ezartzea tokiko ekonomiaren dinamizaziorako lehentasunezko ekintza gisa.

Gizarte-politikak

Gure udal lehentasuna izango da pertsonak eta beren duintasuna babestea, eta egoera ahulenean dauden kolektiboari arreta ematen oinarrituko dugu lan hori:

-Adinekoentzako arreta integrala.

-Babesa haurrentzat eta gazteentzat.

-Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta hobetzea.

Lurralde-oreka

Hiriarteko garraio publiko jasangarri baten alde apustu egitea kohesio sozialerako eta lurraldearen egituraketarako baliabide gisa.

Turismoak, jarduera ekonomikoa gisa, jasangarria izan behar du eta bere alderdi anitzetan sustatuko dugu lurralde-kohesiorako faktore gisa.

Udal zerrenda

1. Patxi Suarez Perez.
2. Fermin Orue-Echevarria Iturri.
3. Maria Arrate Irazabal Oyarzabal.
4. Julio Jaen Moral.
5. Antonia Novillo Ruiz.
6. Mauricio Lorenzo De La Torre.
7. Noemi Puertas Gonzalez.
8. Kristian Garnateo Aranda.
9. Esperanza Quicios Martinez.
10. Angel Morales Rojo.
11. Jesus Novillo Ruiz.
12. Isabel Garcia Martin.
13. Naroa Greño Rivadulla.

Foru hauteskundeetarako zerrenda

- Denis Itxaso Gonzalez.
Susana Garcia Chueca.
Julio Fidel Juan Astudillo Rodrigo.
Arritxu Maraño Basarte.
Hermenegildo Gonzalez Moran.
Maria Jesus Egido Moreno.
Iñaki Mirena Mugica Flores.
Alma Maria Fernandez Alonso.
Agustin Valdivia Calvo.
Maialen Alonso Labandibar.
Ricardo Crespo Rubio.
Nuria Fernandez Castrillo.
Mikel de Aralar Sardon Delgado.
Lilian Maribel Ramos Ruiz Diaz.
Maria Begoña Palos Barbero.
Maite Sanchez Garcia.
Jesus Maria Eguiguren Imaz.

Europako hauteskundeak PSOE

- Josep Borrell Fontelles.
Iratxe García Pérez.
Lina Gálvez Muñoz (independente).



PP alderdiaren hautes-programa: "Ongizatearen gizartea mantendu nahi badugu, errekurtsio publiko gehiago beharko ditugu"

NOAUA! Zeintzuk dira zure alderdiak osatu duen hautes-programaren ildo nagusiak?

Pascual Plaza Romo, PP. Soziologiko-ki, gizarte zerbitzuen premia duen populazioa handitzen ari da eta aktiboan den populazioa jaisten. Gure ongizatearen gizartea mantendu nahi badugu, kontuan izan behar dugu baliabide publiko gehiagoren beharra izango dugula. Lehenik eta behin, gure adinduak atenditu ahal izateko.

Gure biztanleria zahartzen ari da eta erresidentzia batean sartzeko itxaron-zerrendak bere horretan jarraitzen du. Baita Usurbilen ere. Udaletxetik errekurtsio gehiago ipini beharko dira, baita tele-asistentziarako ere, era horretan adinduak euren etxeetan zainduak izan daitezten.

Ausardiaz defendatu behar dugu herriko merkataritza, beharrezkoa da. Internet eta hedadura handiko saltokien ondorioz kaltetuta daude herriko saltokiak. Usurbilen ere oso gertu dugu bat, eta herriko merkataritzaren biziraupena zailtzen du.

Onura fiskalak eskaini, adibidez, lokal bat alokatzen duenari edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren-



"Baliabide publiko gehiago beharko ditugu, bereziki adinez nagusi direnentzako".

gatik (IBI) ordaintzen dutena merketu, usurbildarrak herrian erostera animatu beherapen-txartelen bidez, publizitate kanpainak egin...

Alderdi Popularrarentzat, ezinbestekoa da beste gai hau: 45 urtetik gorako langabetu bakoitzari laguntza bat eskaintzea Udaletxetik. Bere formazioa sustatu eta, besteak beste, udal izaerako etxebizitzak modu merkeagoan eskaini alokairuan. Hala nola, hainbat zergen salbuespena edo merketzea eskaini.

Udal zerrenda

1. Pascual Plaza Romo.
2. Antonio Lopez Elvira.
3. Emilio Julian Rodriguez Alcantud.
4. Pilar Valcarce Bardón.
5. Maria Dolores Quiralte Carmona.
6. Jaime Perales Martinez.
7. Ignacio Alberto Cuellar De La Torre.
8. Maria Enriqueta Patau Cremades.
9. Isidoro Angel Luis Severiano Sebastian.
10. Enriqueta Rodriguez Portoles.
11. Francisco Jose Fernandez Rey.
12. Rosalia Rodriguez De Barrio.
13. Amalia Rosales Marquez De Prado.

Ordezkoa:

1. Maria Sanchez Andrada.

Foru hauteskundeetarako zerrenda

Juan Carlos Cano Aristoy.
Alejandro Saenz Muriel.
Jose Luis Arrue Pinto.
Carlota Sanz Martinez.
Marta Sanchez Moreno.
Ines Baroja Horrillo.
Javier Otero Herrojo.
Maria Josefa Lafuente Grasa.
Mikel Perez Mayor.
Candida Fernandez Ferrera.
Jacobo Caparros Ruiperez.
Elvira Pascual Izquierdo.
Salvador Cabanilles Perez.
Blanca Tejada Manso de Zuñiga.
Ana Rabina Pinilla.
Ana Zulueta Casarrota.
Borja Semper Pascual.

Ordezkoak:

David Hernandez San Luis.
Encarnacion Aramendia Alonso.

Europako hauteskundeak Partido Popular

Dolors Montserrat Montserrat.
Esteban González Pons.
Antonio Javier López-Istúriz White.



Aulki Zuriak taldearen hautes-programa: "Hau da gure proposamena: aukerarik aurkitzen ez dutenen aukera izatea; aukera eraginkorra"

NOAUA! Zeintzuk dira zure taldeak osatu duen hautes-programaren ildo nagusiak?

Luis Mari Ormaetxea, Aulki Zuriak. Herriarrei proposatzen dieguna berezia da. Guztiz aldentzen da beste alderdiek egiten dituzten promesa sortengandik. Pertsona guztiek bozkatzeko eskubidea dute; baina, bozka guztiek ez dute berdin balio. Alderdi politiko nagusietan ordezkatuak sentitzen ez diren herritarrak behartuta daude bozka zuria bozkatze- ra edo baliogabea aukeratzera, bozka- tu gabe geratzera, edota guztiz gogoko ez duten zerbait bozkatze- ra; beraz, euren aukera inoiz ez da udaletxetan islatua izaten. Ondorioz, betiko alderdi nagusiek, Hauteskunde Legeaz baliatu- rik, eserleku guztiak – eta diru guztiak – banatzen dituzte euren artean.

Gure hauteskunde programa lerro ba- tean laburtzen da: "Lortuko diren eser- lekuak libre uztea, edozein soldata zein diru sarrerei uko eginez". Herritarrek eserleku bat hutsik uzteko eskubidea dutela defendatzen dugu; beraz, eser- leku horrek ez zaie euro bakar bat bera ere kostatu behar herritarrei. Legealdi osoan zehar eserlekuak libre geratuko dira. Ondorioz, legeaz eta araudiz da- gozkigun ordainsari guztiak jasotzeari uko egiten diegu.

Konpromiso hori lotu nahirik, Aulki Zu- riak – Escaños en Blanco-ko zerrenda- buruek, notario baten aurrean, adierazi eta sinatu dute lortuko dituzten eserle- kuak libre utziko dituztela. Notario ba- ten aurrean hori egiten duen alderdi bakarra da. Gure hitza beteko duguna- ren adierazgarri.

Aulki Zuriak bozkatzea era zintzoena delakoan gaude. Batez ere, norbera- ren pentsatzeko era jasotzen ez duten beste proposamenei bozka eman edo ez zalantzan baldin badago. Guk, gure hitza hasiera hasieratik beteko dugu: esan eta egin. Gure hauteskunde pro- grama bere osotasunean beteko dugu- la baieztatzen dugu; ozenki.

Luis Mari Ormaetxeak, Aulki Zuriak



"Herritarrek eserleku bat hutsik uzteko eskubidea dutela defendatzen dugu".

alderdiko zerrendaburua denez, bere eserlekua libre utziko du. Era horre- tan, libre uzten den eserleku horrek baztertuak sentitzen direnen, ahaztuak sentitzen direnen, edota herri politikare- kiko frustratuak sentitzen direnen adie- razgarri izango da. Udal bilkurak egiten diren bakoitzean, beste alderdiek hori guztia izango dute aurrez aurre.

Hori da gure eskaintza nagusia. Ondo- rioz batzuk dituen eskaintza:

Nagusiena, gehiengo osoak osatzea zailtzen direla. Bozka gehien lortzen di- tuzten alderdiak izango dira kaltetuenak eserlekuak libre geratzen badira. Hautes- kunde Legea aplikatuz lortuko lituzketen zinegotzi kopurua baino gutxiago lortuko baitituzte. Ondorioz, diru sarrera gutxia- go izango dituzte, eta udalari merkeago ateratzen zaio politikoak mantentzea.

Bestetik, Aulki Zuriak udalean lortzen duen presentzia sistema politikoaren kalitate demokratikoa neurtzen du. Ge- ratzen diren eserleku libreak ohiko al- derdi nagusiek ordezkatzeko ez dituzten herritarrenak baitira.

Azkenik, gehiengo osorik ezean, kon- tsentsuak bilatzera behartzen ditu al- derdiak. Horrek, berez, suposatzen du hartzen diren erabakiak babes gehiago izango dutela herritarren artean.

Hau da Aulki Zuriak-en proposa- mena: aukerarik aurkitzen ez dutenen aukera izatea; aukera eraginkorra.

Udal zerrenda

1. Luis Maria Ormaetxea Santsiñena*.
2. Maria Cruz Pascual Sanchez.
3. Pedro Maria Ibarra Iraculi*.
4. Esther De Juan Mangas*.
5. Aitor Picabea Lamuedra*.
6. Maria Pilar Casabona Blasco*.
7. Antonio Picabea Sarasola*.
8. Elizabeth Martinez Sanchez*.
9. Andoni Picabea Lamuedra*.
10. Maria Asuncion Lopez Miguel*.
11. Jose Manuel Roteta Echeverria*.
12. Lucia Moreno Diez*.
13. Antonio Garcia Castellon*.

* Independente moduan.

Foru hauteskundeetarako zerrenda

Daniel Lizarralde Aguirre.
Amaya Larrea Loran*.
Luis Mari Ormaetxea Santsiñena*.
Mari del Mar Rodriguez Calvillo*.
Luis Garcia Molina.
Pedro Maria Ibarra Iraculis*.
Rosa Maria Garcia Molina*.
Aitor Picabea Lamuedra*.
Saioa Rodriguez Elgorriaga*.
Juan Bautista Jordan Val*.
Jose Maria Pereda Goicoechea*.
Maria Asuncion Lopez Miguel*.
Oscar Sanz Miguel*.
Lucia Moreno Diez*.
Antonio Picabea Sarasola*.
Francisca Molina Casado*.
Jacoba Calvo Sarriegui*.

* Independente moduan.

Europako hauteskundeak Aulki Zuriak (EB)

Taldeak ez du hauteskunde hauetara aurkezterik izan.

#ElkarrekinBurujabe

usurbilehbildu.home.blog



1. Agurtzane Solaberrieta Mesa, 2. Beñat Larrañaga Urdanpilleta, 3. Lur Etxeberria Gurrutxaga, 4. Joxe Mari Iribar Zapirain, 5. Aroa Etxaburuua Ugartemendia, 6. Luken Arkarazo Silva, 7. Oxkar Santamaria Pikabea, 8. Itziar Basterrika Unanue, 9. Ainhoa Arrozpide Landa, 10. Nerea Goizueta Garmendia, 11. Alazne Olaizola Iparragirre, 12. Ana Eizagirre Sagardia, 13. Xabier Arregi Iparragirre, 14. Fatimetu Hamadi Rgubi, 15. Eugenio Noriega Díez, 16. Ixidra Navarro del Amo

Azken bultzada ekitaldia

maiatzak 24, ostirala

19:00, Mikel Laboa Plazan

Argazki erraldoia eta hizlariak:



Nerea Kortajarena
EH Bildu taldeko legebiltzarkidea



Agurtzane Solaberrieta
Usurbilgo Udalerako alkategia

Euskararen transmisioa familia giroan

Euskararen transmisioa familia giroan sustatzea, horixe da tokiko administrazio askotako eta euskararen aldeko mugimenduetako erronka. Asmoa beretsua da, toki guztietan: Hango eta hemengo herrikideak euskararen bidera erakartzea. Herrigune gehienetan ekimen interesgarriak daude. Andoainen, esaterako, Bidaide izeneko ekimena sustatzen ari dira, emaitza bikainekin.

Familia giroan euskararen transmisioa bermatzeko zein baliabide eskaintzen dituzue?

Ainara Loiarte. Familiei dago-kienez, Bidaide izeneko programa garatzen ari gara. Mintzalaguna egitasmoaren adar bat dela esango genuke.

Olatz Peñagarikano. 2012tik hona ekimen ezberdinak abian jarri dira, urteen poderioz doitu-tuz joan direnak. Hasiera batean jolasa euskaraz sustatzea zen helburua. Gerora, ekimenak aberastuz joan dira. Urtean zehar hainbat ekintza antolatzen genituen, eta parte hartzen hasi zen kopurua igotzen hasi zen. Bidaide izenarekin ezaguna da ekimena, une honetan. Ipuin kontaketa saioak, dantza ikastaroak, sukaldari tailerrak,



Olatz Peñagarikano eta Ainara Loiarte Andoaingo Mintzalaguna eta Bidaide euskararen aldeko egitasmoetako ordezkariak dira. Argazkia: Aiurri.

NOLA LAGUNDU?

“Egunerokoan, guraso euskaldunek euskararen bidean direnei laguntza eskaini behar diete. Ez da lan handia, eta eskaintzen den laguntza euskaldun berriari oso baliagarria izango zaio”

jolas kooperatiboak... ikasturtean zehar dozena erdi bat jarduera antolatzen ditugu.

Erabat euskalduna ez den familiaren kasuan, egunerokoan euskara erabiltzen hasteko

zein aholku emango zenioke?

Olatz Peñagarikano. Kasuan kasu aztertu beharko litzateke. Gurasoetako bat euskalduna bada saia daitezela haurraren beti euskaraz egiten. Eta euren arteko harremana ere euskarazkoa izaten ahalegindu daitezela. Bestela haurrak euskara eskolako eta gauza akademikoetarako dela barneratuko du. Aisialdia erdararekin lotzera joko du.

Ainara Loiarte. Familia horien kasuan, euskara aisialdiarekin uztartzea lortu behar da. Esperientzia dibertigarriak euskaraz egiteko aukera ematea ezinbestekoa da.

“Euskaldunei pazientzia eskatuko genieke”

Euskara ikasten ari diren guraso asko daude. Euskal jendar-tea jabetzen al da guraso horien esfortzuaz?

Olatz Peñagarikano. Esfortzu handia egiten dute, bai. Bestalde, kalean askotan euskaraz badakien jendea gazteleraz hitz egiten ikusten dugu. Euskarara murgiltzeko ahalegina egiten ari den horri ez zaio behar adina aitortza egiten, ez. Euskara ikasten ari den horrekin solasean ari garenean, euskaldunok erosotasunagatik gaztelerara jo ohi dugu. Solasaldi horietan euskara lehenesteko esfortzua

egin beharko genuke.

Ainara Loiarte. Euskaldunei pazientzia eskatuko nieke. Ikasten ari den pertsona horrek ikasitakoa praktikan jartzen ez badu, ez du erabilerarako pausua emango. Eta pauso hori ematea oso garrantzitsua da. Mintzalaguna bezalako programa horrexegatik da interesgarria, bi edo hiru pertsona elkar-tu eta beraien artean ohiturak aldatzen hasteko giltza delako.

Euskararen bidean dagoenari laguntza eman behar zaio, ezinbestean. Lehen hitza eus-

karaz eginez, edo asmatzen ez duen kasuan esaldia amaitzen lagunduz.

Ainara Loiarte. Bai, eta zerbait gaizki esaten badu, bromarrik ez egitea. Hortik jarraitzea lortu behar baitugu, azkenean hobetzen joateko euskaraz aritzea besterik ez baitago. Arian arian, lotsa galdu eta aurrera jarraitu beharra dago.

Olatz Peñagarikano. Ikasten ari direnekin enpatia garatzen ari garela esango nuke, baina asko kosta zaigu besteen lekuan jartzea eta aukera horiek ematea.

“Garrantzitsua da haurrek gurasoak koherentziaz jokatzeko ikustea”

Euskaraldia zenbateraino izan da garrantzitsua?

Olatz Peñagarikano. Euskaraldia iraganeko ohiturak aldatzen joateko eta barne hausnarketa sakona egiten hasteko baliagarria izan zen. Horrelako ekimenak beharrezkoak dira.

Nola murgildu daiteke familia erdaldun bat euskaldun-tze prozesuan?


Olatz Peñagarikano. Jendea euskaraz agurtuz has daitezke, eta haurraren irakaskuntza prozesuan inplikatu. Haurrak gurasoen interes hori eskertzen duela esango nuke. Umeak marrazki bizidunak ikusten badiu, pasiboki bada ere, gakoa euskara pixkanaka egunerokoan sartzen hastea da.

Ainara Loiarte. Dakiten gutxi hori erabiltzen has daitezela, eta hortik aurrera erabilerareagotuz joan daitezela. Besteak beste, denboran zehar ikasten doazen hitzak eta esaldiak erabiliz.

Eguneroko kasuetara itzuli gaitzen. Nola lagundu familia bati eskolan, parkean?

Ainara Loiarte. Guraso euskaldunen jarrera garrantzitsua da, gehienbat ikasten ari den pertsona horri lehen hitza euskaraz egiteko garaian. Hori eginda, pixkanaka hizkuntza ohiturak aldatuz joan dira.

Olatz Peñagarikano. Garrantzitsua da haurrek gurasoak koherentziaz jokatzeko ikustea. Haurrari euskaraz egiteaz gain, haurrak bere gurasoak ingurukoekin euskaraz hitz egiten ikusi behar ditu. Haurrak inkoherentzia horiez oso kontziente baitira.



BAZKIDEEEN TXOKOA

"H-ARTZETIK, POESI MUSU ZAPIETAN"
ikuskizuna

Maiatzak 24, ostirala, 20.00tan Sutegin

NOAUA! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu maiatzaren 22an

Bazkide editeen bazkara. Opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan Parte hartzeko aukera. 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

Opariak eta barruko landareak

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa

943 30 29 20

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude

Udako txokoetan izena emateko garaia da

Ohi bezala, Usurbilen, Zubietan eta Aginagan udaleku irekiak antolatu dira haur eta gaztetxoentzako datorren oporraldirako. Izen emateko garaia da.

Udajolas

■ Iraupena: uztailearen 3tik 30era.

■ Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:30-13:30.

■ Plaza kopurua: Usurbilen erroldaturiko HH3-LH6 arteko 4-12 urte arteko haur eta gaztetxoentzako 200 plaza.

■ Izen emateko epea: maiatzak 23.

■ Izen emateko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 10:00-11:00; 16:30-18:30. NOAUA! K.E.-ren bulegoan (Bordaberri 3).

■ Kuota: 84 euro (familia ugariak 68 euro. Kasuotan, Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia ekarri). Ordainketak Laboral Kutxaren 3035 0140 34 1400025811 kontu zenbakian egin.

■ Izen ematerakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa: ordainagiria hauraren izen abizenekin, izen emate orria egoki beteta eta gizarte segurantzaren txartelaren kopia.

■ Oharrak:

-Epez eta orduz kanpoko izen ematerik ez da onartuko.

-Maiatzaren 23an 18:30ean



Usurbilen, Aginagan eta Zubietan antolatu dituzte aisialdi ekintzak.

IZEN-EMATEAK

“Maiatzaren 23an amaituko da Udajolasen izena emateko epea. Aginagako txokoetan izena emateko aukera maiatzaren 28an itxiko da”

izen emateko epea itxi eta berehala jakinaraziko dugu noaia.eus bidez nahiz atean jarriko dugun zerrendan, zenbat izen emate egon diren.

-Udajolaseko guraso bilera, ekainaren 13an 17:00etan Sutegin.

■ Antolatzaileak: NOAUA! K.E. eta Usurbilgo Udala.

Aginagako txokoak

■ Iraupena: ekainaren 24tik abuztuaren 2ra.

■ Oharra: taldea sortuko baltz, abuztuaren ere martxan segiko dute udako txokoak.

■ Izen emateko epea: maiatzaren 28ra arte.

■ Izen emateko bideak: iraupen osoko izen ematea edo aste solteetarako.

■ Informazio gehiago: gurasoelkartea@aginaga.eskolatxiak.eus

■ Antolatzailea: Aginagako Eskolako San Praixku Guraso Elkarte.

Zubietako txokoak

■ Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:30-13:30.

■ Nori zuzendua: 4-12 urte artekoak.

■ Informazio gehiago: zubietatxoko@gmail.com / 649 659 786.

■ Antolatzailea: Zubietako Eskolako Guraso Elkarte.

Ixabel Agirresarobek mikro-kontakizun lehiaketa irabazi du

Martxoan Moreak ekimenaren baitan, emakumea eta genero berdintasuna hizpide zuen Legutioko Udalak antolaturiko Mikro-Kontakizun Lehiaketa irabazi du Ixabel Agirresarobek. Halako lan bat aurkeztu zuen lehen aldian izan eta txapelketa irabazi du. “Gertuko pertsonen benetan gertatutako garai bateko istorio batetik abiatu nintzen”, adierazi dio Agirresarobek NOAUA!ri. Iragarri digunez, “batek baino gehiagok bere burua ikusiko du istorio horretan”. Lehen urrats hau eman ostean animatu eta idatzitakoa interpretatzen urteak daramatzan sortzaile usurbildarrak luzeagoa den kontakizun bat sortzen dabilela berri eman dio NOAUA!ri.

Galtzak

1962. urtean Donostiako Zinemaldiko arratsalde batean bi ahizpa abiatu ziren baserrietik kalera. Plazan musika izango zela eta poz pozik zihoazen, bai horixe.

Herriko plazara iritsi aurretik, etxe atzealde baten babesean gazteenak poltsatik galtzak ateratu zituen. Hantxe bertan gona erantzi eta galtzak jantzi zituen.

Etxetik haiek jantzita ez biltzen ausartzen ateratzen.

Jantzi zituen ba galtzak eta abiatu ziren plazara.

Haur talde bat jolasean ari zela ondotik pasatzerakoan hara zer esan zion neskato batek:

-Nori kendu dizkion galtzak, nebari?

Denak barrez lehertzen hasi ziren.

Gure ahizpa gaztea, hau ikusita, etsita, gona jantztera abiatu zen.

Zaharrenak ordea geldiarazi zuen;

- Ez egin atzera neska, ausarta izan zara eta. Beraien ezina zein den adierazi dizute.

Ezina ekinez eginik lortuko dugu.

Muxurbilen ikasturte amaierako emanaldia

Urte hasieratik hona landu dutena plazaratzeko ordua heldu zaie Muxurbilekoei. Ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute larunbatean (maiatzak 25) 12:00etan Sutegin. Sarrerak doan eskuratu ahaliko dira ekitaldi aurretik kultur etxean bertan. Azken asteotan jada, ohiko lokaletik Sutegiko oholatza gaine-

ra jauzi egin dute Muxurbileko gaztetxoek, entsegu saioetan. 4-11 urte arte inguruko gaztetxoak ariko dira antzezle lanetan larunbatean. “Adin tarte handia baina hala gertatu zaigunetik gusturago gaude. Gauzak naturalago ateratzen zaizkigu. Ilusio handia dute”, adierazi digute antzerki taldeak.



Larunbat honetan, 12:00etatik aurrera Sutegin.

Jakin Jardunaldietan maitasun eredu erromantikoaz hausnartuko dute

Uztailarekin batera iritsiko dira Jakin Jardunaldiak. Hirugarrenez egingo dira Usurbilen. Egitarauaren aurkezpen ekitaldian, Xabier Arregi alkateak ekimenaren garrantzia azpimarratu zuen: “Usurbil hitzaren eta gogoeta pausatua topaleku izan dadin nahi dugu”.

Maitasuna politikoa da jardunaldietan arlo ezberdinetako adituak batuko dira. “Maitasunaren ideologiak gure buruak, gure harremanak eta gure etxe eta kaleak nola eraikitzen dituen aztertuko dugu aurten”. Lorea Agirre Jakin aldizkariko zuzendariaren hitzak dira horiek. Antropologoak, arkitektoak eta hezkuntza arloko adituak ekarriko dituzte uztailean Artzabal baserrira. Mari Luz Esteban, Lorea Agirre, Oihane Ruiz, Leire Milikua, Nora Salbotx, Ula Iruretagoiena eta Jone Miner, besteak beste.

Kepa Sarasola UEUko zuzendariaren esanetan, “gure zereginen artean dago topaguneak eskaintzea: ezagutza eta euskara zabaltzeko, hausnartzeko eta eztabaidarako. Udako Ikastaroak helburu horiek guztiak bideratzeko toki ezin aproposagoak dira, bai eta elkarlana sustatzeko ere”.

Jakin Jardunaldiak hain zuzen, UEU, Jakin eta Usurbilgo Udalaren elkarlanaren emaitza dira. Uztailaren 11n eta 12an egingo dira Artzabalen baina izena emateko epea dagoeneko zabalik da.



Maitasuna politikoa da jardunaldietan arlo ezberdinetako adituak batuko dira.

LOREA AGIRRE

“Maitasunaren ideologiak gure buruak, gure harremanak eta gure etxe eta kaleak nola eraikitzen dituen aztertuko dugu aurten”

Jakin Jardunaldiak

Uztailak 11 osteguna

- 09:15-09:30 Ongietorria.
- 09:30-10:15 Lorea Agirre Dorronsoro (Jakín): Maitasunaren ideologiaren eraikuntzak eta deseraikuntzak.
- 10:15-11:00 Oihane Ruiz Menéndez (arkitektura feminista ekintzailea): Maitasunaren ideologia eta hirigintza arteko lotuneak.
- 11:00-11:30 Kafe tarte.
- 11:30-12:15 Leire Milikua Larramendi (arkitektoa): Arkitektura, desira eta sexualitatea.
- 12:15-13:00 Saio irekia.
- 13:00-15:00 Bazkaria.
- 15:00-17:00 Esperientzien

plaza: Elizondo, Bakio, Usurbil.

Nora Salbotx Alegria (NUPeko hezkuntza saileko irakaslea): Umeak herriak eraikitzen (Elizondo).

Ula Iruretagoiena Busturia (hirigilea eta EHUKo irakaslea): Transbertsalitatea eta afektuak udalerrir plangintza (Bakio).

Jone Miner Aginaga (Usurbilgo udal arkitektoa): Txirikorda, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa (Usurbil).

Uztailak 12 ostirala

- 09:00-09:45 Mari Luz Esteban Galarza (antropologoa): Maitasuna erdigunetik kanpo.
- 09:45-10:30 Abaraska kolektiboa: Etxebizitza eredu auzitan jartzen (Donostia).
- 10:30-12:00 Tailerra eta kafe: Etxebizitza parekidea eta kooperatiboa nola eta nondik?
- 12:00-13:00 Partekatze saioa.
- 13:00-13:30 Bea Egizabal Ollokiegi: Klownklusioak.
- Izen-ematea: ueu.eus

DYA-ren sorospen ikastaroa

Lehen sorospenen inguruko ikastaroa antolatu du DYA-k Munalurra 26an duen egoitzan, maiatzaren 27tik ekainaren 5era. Saioak goizez izango dira, astelehenerik ostiralera, 10:00-14:00 artean. “Interesa duen edonori zuzendua. Ez da alde aurreko osasun eza gutzarik behar”, berri eman dute DYA-tik. Plaza kopuru mugatua izango da. Izena emateko:

dyagipuzkoa.com

943 46 46 22

info@DYAgipuzkoa.com

Sagarrondotik

Sagardora ikastaroa

Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ikastaro praktikoko hurrengo saioa, ekainaren 1ean. Aitor Etxeandiarren eskutik, “Sagastien udako kimaketa, gatzak eta izurriteak”. Potxoenean, 9:00-13:00 artean, baina antolakuntzak ohartarazia duenez, kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira. Informazio gehiagorako: 943 361 114 alkartasuna@usurbil.com alkartasuna.eus

KzGunea,

ekainean arratsaldez

Maiatzean goizez zabalduko dute, 9:00-13:00 artean. Ekainaren 3tik aurrera, 16:00-20:00 artean.

■ Maiatzak 30-31, 11:00-13:00: “Google argazkiak. Antolatu lainoan zure argazki guztiak”.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA



Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com

SALEROSKETA & ALOKAIRUAK

G15 GIPUZKOA HIGIEZINA ELKARTEA

Irailean, Pirinioetako Estos bailarara

Irailean 21etik 22ra Estos bailarara asteburupasa antolatu du Andatza M.K.K.-k. Bost hiru milako egitera gonbidatzen dituzte mendizaleak. Estoseko aterpean hartuko dute ostatua. Pirinioetako asteburupasarako izen ematea zabalik izango da uztailearen 15era arte.

- Noiz: irailak 21-22.
- Zonaldea: Estos bailara.
- Ibilbidea: 5 hiru milako egin gora. Estoseko bailan.

Behin behineko egitaraua:

- Irailak 21: 6:00etan Usurbildik autobusez abiatu. Bidean geldialditxo egin ondoren, Estoseko aparkalekura iritsi eta Estoseko aterpera abiatu.
- Irailak 22: Estos Aterpetik Clarabides eta Giaseko gailurak egiteko asmoz abiatu. Ondoren, aparkalekura jaitsi autobusa hartzeko eta ilunabarrean Usurbilera itzulera.

Prezioak:

- Andatzako bazkideek: 37,50 euro FEDME gehigarria dute.



Irailean 21etik 22ra bost hiru milako egiteko asmoa dute Andatzako kideek.

nek, 45 euro FEDME gehigarria ez dutenek.

- Andatzako bazkideak ez direnek: 77,50 euro FEDME gehigarria dutenek, 85 euro FEDME gehigarria ez dutenek.

Izen ematea:

Uztailearen 15a baino lehen, ordainketa egin Andatzako kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 300802591630 05430321 Kutxabank: 20955069071068489805

Oharrak:

- Plaza kopuru mugatua.
- Izen emateko zerrenda errespetatuko da, plazak bete arte.

■ Lehentasuna Andatza M.K.K.-ko bazkideek izango dute.

- Andatza M.K.K.-k antolatutako irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin jarri harremanetan andatza@hotmail.com helbidean. Komenigarria da izapidetza ahalik eta azkarren egitea".

Informazio gehiago:
andatzacom

Futbola Haranen

Maiatzak 25 larunbata

- 11:00 Infantil txikien finala: Tolosa- Antiguoko
- 17:00 Jubenilak, Kopako Finalerdiak: Usurbil F.T.-Lengokoak

Jubenil futbolariak

animatzera joateko deia

Usurbil F.T.-tik larunbat arratsaldeko 17:00etan Haranen ospatuko den neurketara joan eta herriko jolakariak animatzera deitu dute. "Jubenilek Kopako finalera sailkatzeko aukera dute", ohartarazi diote NOAUA!ri Usurbil F.T.-tik.

Mendi orientazio

ikastaroa

emakumeentzat

Patri Espinarrek gidatuta, maiatzaren 11tik ekainaren 15era, larunbatero, 9:30-13:30 artean. Lehen eta bigarren saioak Potxoenean egingo dira, gainerako lauak mendian.

Izen-ematea:

parekidetasuna@usurbil.eus
943 377 110.

Senior futbol taldekoen bilera

2019-20 denboraldian, "Usurbilgo emakumezkoen erregerial taldean jokatu nahi duzuz?". Baiezkoa eman eta Usurbil F.T.-k senior mailan osatu nahi duen emakumezkoen taldeko kide izatera animatzen dute.

Interesa duzuen guztiontzako bilera hitzordua finkatu du herriko futbol klubak; ostegun



Emakumezkoen erregerial taldea osatzeko asmoa dute.

honetan (maiatzak 24) arratsaldeko 18:00etan Haran futbol zelain.

Sektoreko txapeldun-orde



Usurbil KE taldeko kadeteek denboraldi ederra osatu dute. Sektoreko txapeldun-orde izan ziren asteburuan. Zorionak! Argazkia: Ana Merino.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO


Patri Enea
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera

943 362725 · 688 690 361

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, kafefakzioa. Iggogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukalde jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrentzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m2. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m².

Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Zubiaurrenea kalean. Berritu berria, azken pisua eta eguzkitsua. 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi. Dena kanpoaldera begira eta igogailuarekin. 696152951

Erdialdean pisua alokatzen da; 2 gela, egongela, sukalde, komuna eta trastelekua. Dena kanpoaldera eta oso eguzkitsua. Hiru balkoi eta igogailua. Tlf: 670070562.

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informeak ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m2-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583



Zorionak Elsa!
Maiatzaren 26an urteak beteko dituzu. Zorionak iloba eta familiakoen partez.



Zorionak Oihane!
Gure etxeko txikiak 10 urte betetzen ditu maiatzaren 26an. Muxu potolo bat!



Zorionak Maren!
Maitzaren 29an 5 urte beteko dituzu. Egun zorionsu eta alaia pasa dezazula. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Oihane!
Gure etxeko txikiak 10 urte betetzen ditu maiatzaren 26an. Muxu potolo bat!



Zorionak Peru!
8 urte!! Muxu handi bat, Eire, aitatxo eta amatxoren partez!



Zorionak Elene!!!
Zorionak etxeko polittinari! Familia eta lagunren partez. Mua!!!



Itxaso, ez jarri jelskor!
Zuri ere iritsi zaizu txanda. Ondo ospatu urtebetetzea!

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegiaren. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefonon honetara: 607110365.

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administrari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatu bazeude, deitu 943 361 114 edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorpuzaldia@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzaile behar dira Aratz erretegiaren, info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketari, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632

140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldean. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketari. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritzean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Seguituan lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonese arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. Tel. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltzeta bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinetak bat galduta dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Izaro

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesatu baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Ataluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenean ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 26 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 27 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 28 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 29 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Maiatzak 23 - Ekainak 02

Osteguna 30 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 31 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

24 ostirala

- **Zubietako Udaberri Festa 2019:** 17:00etatik aurrera.
- **"H-Artzetik, poesia musu zapietan" ikuskizuna.** 20:00etan Sutegin. Sarrerak: Lizardin 8 euro aldeztatik, 10 euro egun berean (leihatilan).

25 larunbata

- **Muxurbil antzerki taldekoen emanaldia.** 12:00etan Sutegiko auditorioan.
- **Aginagako Eskolako kide eta kide ohien topaketa.** 12:00etatik aurrera.
- **Tailerra: udaberriko armairu aldaketa** 10:00-13:00 TaPunturen egoitzan.

26 igandea

- **Hauteskunde eguna** Udal, foru eta europako hauteskundeak.

Larunbat honetan kantu-jira Usurbilen, ekainaren 15ean Zuberoan

Maiatzaren 25ean 12:30ean Mikel Laboa plazatik abiatuta, ikasturteko ohiko hileroko azken kantu-jira ospatuko da. Udako etenaldiaren aurretik ordea, saio berezirik izango da hurrengo asteetan zehar.

Besteak beste, azken urteotako hitzorduari hutsik ez diote egingo aurten ere. Usurbilgo Euskal Kantu Taldea, Euskal Herria Kantuz elkarteak eta Xiberoko Kantuzaleen Biltzarrak ekainaren 15ean Zuberoan, Maule-Urdiñarben antolatuta duten Euskal Herria Kantuz Egunera joateko irteera prestatzen ari da. Autobus zerbitzua antolatu dute Usurbildik; 8:30etan abiatuko da Oiardo Kiroldegi ataritik. Egunpasa joan asmo duenak Kantu Taldeko kideren batekin hartuemanetan jar dadila.



Larunbat honetako kantu saioa eguerdiko 12:30ean abiatuko da Mikel Laboa plazatik.

Biharamunean maskarada

Egutegia eskutan hala egokitu da. Usurbildik eta Xiberoara irteera antolatu dute ekainaren 15ean, eta biharamunean, xiberotarrak izango ditugu Usurbilen. Go-goan izan, ekainaren 16an, maskarada eguna Usurbilen! Asteotan xehetasun gehiago.

Zubietako Udaberri Festa, azken txanpan

Maiatzak 23, osteguna

- 16:30 Merienda Zubietako eskolakoentzat.
- 17:00 Puzgarriak eta trebetasun frogak.

Maiatzak 24, ostirala

- 17:00 Dantza emanaldiaren irekiera; Agurra, Makil Dantza eta Ikurriña Dantza.
- 17:05 Zubieta antzerki eta dantza

taldeko ikuskizunak (2 talde dira: HH5-LH1; LH2-3-4).

- 18:00 Helduen eta haurren plaza dantza saioa (Loli irakasleak gidatua).

- 19:30 Afari-merienda eta ondoren Disko Festa Karaokea!

Antolatzailea: Zubietako Eskolako Guraso Elkarteak.

Datozenak

Ekainaren 2an, MusikaZuzenean jaialdia Sutegin

MusikaZuzenean jaialdia ibiltaria da. 2019ko edizioa Usurbilgo Sutegin ospatuko da. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, modu akustikoan arituko dira kantari ugari. Hauxe da osatu duten egitaraua: Abereh, Montauk, Paxkal Irigoyen, Gartxot, Serge, Natali, Birkir, Sara Zozaya, Ane, Larra Bideak, Raitx eta Asier Beramendi. Partehartzaile bakoitzak bi kantu eskainiko ditu. Sarrerak aldeztatik aurretik eros ditzakezue Aitzagan. Egunean bertan bestela, Sutegiko leihatilan.



Kontzertua arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Kantari bakoitzak bi abesti eskainiko ditu.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

EDERTU ZAITEZ!

Enar
ESTETIKA



EZKONDUKO ZARA?
EMAZTEGAI TRATAMENDU BEREZIAK
TRATAMENDU KOKTEL EZBERDINAK

Munalurra 2, Usurbil 943 571 680
www.enarestetika.com

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA

Artzabal baserria 626 603 600

UDABERRI BEGIRA
JARRI ZURE AZALA PREST

- AURPEGI GARBIKETA
- GORPUTZ GARBIKETA
- PRESOTERAPIA
- PEDIKURA • MANIKURA,
- BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
- MIKROPIGMENTAZIOA
- LASER IODO • DEPILAZIOAK

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan Irekial
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

9.00etatik 19.00etara zabalik

ileapaindegia

mistoa

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951



Kanpaldiak uztaila eta abuztuan

asteleheneretik-ostiralera

09:00-14:00

8-16 urte bitartean

USURBILEN!



erreserbak: 666 607 447